



METEOROLOGIA TXOSTENA – 2012KO UDA

Azalpen orokorra

EAEan uda oso lehorra bezala kalifikatu daiteke. Lurraldearen hainbat tokitan, normaltzat hartzen den balioaren %30-50a besterik ez zen jaso. Ohikoa den moduan, Gipuzkoa ekialdeko mendietan kokatutako plubiometroek jaso zuten ur gehien (Ereñozu 194.3 mm, Añarbe 171.5 mm, Ameraun 164.4 mm). Beste muturrean Araban (Ozaeta 33.5 mm, Gardea 44 mm, Paganos 48.8 mm) eta Bizkaia mendebaldean (Ordunte 40.2 mm, Balmaseda 46.3 mm) kokatutako plubiometroak aurkitzen dira.

Beraz, EAEko datuak daudenetik, aurtengoa udarik lehorrenetarikoa izan da. Bizkaian, beste bi udatan pilatu da euri gutxiago (1949 eta 1999an). Mediterraneoar isurialdean, aldiz, azken hamarkada hau, azken 40 urtetako lehorrena izaten ari denez, ez da hain urruti joan behar antzeko datuak aurkitzeko. Horrela, Gasteizeko estazio meteorologikoan 1991ko uda dugu lehorrena, 1989an hasitako lehorrearen azken hondarrak.

Udako hilabete guztietan ohikoa dena baino euri gutxiago jaso zen. Ekaina eta uztaila lehorrak edo oso lehorrak izan ziren. Baina abuztua izan zen uda osoko balantzean eragin handiena izan zuena. Azken hilabete hau oso lehorra izan zen, erabat lehorra EAEko mendebaldean. Deigarria izan zen Bilbo Handian hilabete honetan pilatutako euria, 10 mm besterik ez (Derio 7 mm, Abusu 10.5 mm). Hala ere, lurraldearen mendebaldean badira balio hauek baino gutxiago jaso zituzten estazioak, (Ordunte 2.4 mm, Subijana 3.5 mm, Balmaseda 3.9 mm, Aranguren 4.2 mm).

Ekainari dagokionez, hilaren 11 izan zen prezipitazio gehien pilatu zen eguna, kantauri isurialdean han-hemenka 20-30 mm jaso zen (Matxinbenta 29.5 mm, Aizarnazabal 24.3 mm, Higer 23.8 mm). Egun horretan zaparrada-trumoitsu handiak bota zituen (Matxinbenta 21.9 mm ordu betean, Aizarnazabal 13.8 mm ordu betean, Deusto 13.7 mm ordu betean). Ekainaren 19an ere antzeko zaparradak bota zituen, oraingoan Arabako barnealdean (Espejo 20 mm ordu betean, Arkaute 16.1 mm ordu betean, Navarrete 14.6 mm ordu betean).

Uztailean, Mediterraneoar isurialdean prezipitazio-egunak 4 izan ziren; isurialde honetan hilabetea oso lehorra izango zela ematen bazuen ere, hilaren 26an eta 27an euria egin eta azkenean hilabetea ez zen izan espero bezain lehorra. Hilaren 26an, gauean, Arabako eta Gipuzkoako zenbait tokitan euri handia neurtu zen (Trebilño 28.4 mm ordu betean, Subijana 24.1 mm ordu betean, Ibai Eder 20.4 mm ordu betean, Aizarnazabal 20.3 mm ordu betean)

Abuztuko prezipitazio-egunak eskasak izan ziren: 3 Gasteizen, 8 Bilbon. Hilaren 5ean izan ezik, gainontzeko guztietan han-hemenka egin zuen euria; 5ean estazio guztietan pilatu zen euria.



Uda honetako trumoi-ekaitzak ere urriak izan ziren. Ezin ahaztu, hala ere, ekainaren 2an eta uztailaren 26an Arabar Errioxan bota zuen txingorra, mahastietan kalteak sortu baitzituen.

Taula 1: Azken urteetan udan pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2012	2011	2010	2009	2008	2007	2006	2005	2004	2003
Deusto	63.5	130.7	245.5	100.6	224.5	210.4	133.4	81.5	82.6	90.8
Lasarte	141.3	256.2	272.2	154.3	254.4	389.8	288.4	149.4	227.3	130.2
Arrasate	63.9	142.3	197.3	87.2	145	230.3	114.5	62.5	124.9	76.9
Abetxuko	47.2	55.7	91	64.4	91.7	78.2	125.8	59.1	98.4	68.9
Párganos	48.8	60.9	81.7	32.3	108.1	59.4	106.1	27.6	42	

Udako airearen tenperatura oso beroa izan zen, EAEko ipar-mendebaldean izan ezik; hor beroa izan baitzen. Kostaldeko batez besteko tenperatura 20°C ingurukoa izan zen, Arabako lautadakoa 19°C, batez besteko normala baino 1°C altuagoa.

Hilabetez hilabete aztertzen badugu, uztaila hotza izan zen, ekaina eta abuztua, berriz, beroak. Gorabehera hauekin ere, aztergai dugun uda hau aurreneko postuetan dago serie klimatikoetan, mediterranean isurialdean batez ere. Serie horietan lehenengoak XXI. mendeko udak dira, horien artean 2003koa aipagarriena.

Bilakaera irregular honen adierazle Gasteizeko tenperatura minimoa da, uztailan jazotakoa, eta ez ekainean. Uztailaren 2an Gasteizen neurtutako tenperatura minimoa 3°C inguruan egon zen, datuak jasotzen direnetik hiri honetan uztailan neurtutako tenperatura minimorik baxuena.

Uda honetan bi bero-bolada aipatu behar ditugu, abuztuaren 8tik 10era izandakoa bata eta 17tik 21era jazotakoa bestea; 2003az geroztik tenperatura altu iraunkorren gertaeren artean garrantzitsuenak izan dira. Abuztuaren 10ean muturreko tenperatura maximoak neurtu ziren, datuak jasotzen direnetik altuenak, kostaldean izan ezik. Egun horretan 40°C-ko muga aise gainditu zuen termometroak (Berna 45.2°C, Elorrio 44.8°C, Llodio 44.7°C), baita Arabako hiriburuan ere (Abetxuko 41.7°C, Arkaute 41.4°C), orain arte gertatu ez zen gauza bat.



Taula 2: Udan, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2012	2011	2010	2009	2008	2007	2006	2005	2004	2003
Deusto	20.3	19.6	19.8	20.4	19.6	19.6	21.2	20.7	20.5	21.8
Lasarte	19.7	18.8	19.1	19.9	18.4	18.6	20.1	19.8	19.5	21.3
Arrasate	19.0	17.7	18.1	19.5	17.9	18.2	19.5	19.1	19.0	21.4
Abetxuko	19.0	17.7	17.9	19.2	18.0	17.8	19.5	19.1	18.9	20.5
Párganos	20.3	19.6	19.7	20.8	19.1	19.0	20.4	20.7	20.3	


Udako oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: Udako balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estación	Temp. med. °C	Temp. máx. °C	Temp. máx.abs. °C	Temp. mín. °C	Temp. mín.abs. °C	Días helada	Prec. acum. l/m ²	Prec. máx.día l/m ²	Días prec.
Deusto	20.3	24.5	36.9	16.9	12.4	0	63.5	19.0	37
Lasarte	19.7	25.0	40.5	15.3	10.5	0	141.3	16.2	37
Arrasate	19.0	26.7	42.7	13.1	6.3	0	63.9	12.1	28
Abetxuko	19.0	27.9	41.7	11.4	4.0	0	47.2	20.0	15
Párganos	20.3	28.4	39.1	13.3	6.2	0	48.8	8.7	17




Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak






Prezipitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa
Precipitación observada




Prezipitazio normala
Precipitación normala



Prezipitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normala



Prezipitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normala





Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batezbesteko tenperatura.

Tenperatura maximoa: eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.

Tenperatura maximo absolutua: hileko tenperaturarik altuena.

Tenperatura minimoa: eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.

Tenperatura minimo absolutua: hileko tenperaturarik baxuena.

Izotz-egunak: hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.

Pilatutako prezipitazioa: hilean pilatutako prezipitazio totala.

Eguneko prezipitazio maximoa: hilean, eguneko prezipitazio total altuena.

Prezipitazio-egunak: hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html

OHARRA: Txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta balioztatu egin behar dira oraindik.